



Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO


LEHEN HEZKUNTZAKO 1. MAILA

3. UNITATE DIDAKTIKOA:

AUTONOMIA PERTSONALA, BERDINTASUNEZ

EKIN

GAI ZERRENDAA



HEZKIDETZA

- Irakaslearen gida

MATERIALA

- “Indar eta Atsegin” ipuina
- “Kamara eta... ekin!” jolasa
- Ikasleen koadernoak
- Familien koadernoak



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe:
bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta
autonomoak.**


Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.

BERDINTASUNA:

- Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.



- Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.
- Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.



LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA



NAHIKO! 1-2 Logoa

Desberdintasunaren semaforo gorriak sexuaren arabera.

Berdintasunaren semaforo berdeak denontzat.

HELBURUA: semaforo berde guztiak guztiontzat, semaforo gorriarik gabe.

NIK AHAL DUT:

- Nire gorputza ezagutu, maitatu eta garatu.
- Emozio berriak eta empatia sentitu. Emozio guztiak sentitu, kudeatu eta partekatu.
- Lehen egiten ez nituen gauza asko egin. Jakin-mina izan. Esperimentatu. Ikasi.
- Etxeko girotik atera. Harreman berriak egin. Helduen ereduak imitatu ala ereduak berritu.
- Arreta, umorea, memoria, arrazonamendua eta abar garatu. Aukeratu, erabakiak hartu.
- Elkarbizitzako arauak eta balioak ikasi eta erabili. Lagunartekoa eta gizartea eraiki.





EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Autonomakoa
EUSKO JAURLARITZA
Gobierno Vasco

LEHEN HEZKUNTZAKO

1. MAILA

UNITATEAK	JOLASAK	IPUINAK
1. Gorputza, haztea	Gorputzaren altxorra	Luze eta Txiki
2. Sentimenduak, sentitzea	Sentimenduen altxorra	Bero eta Hotz
3. Autonomia, jardutea	Kamara eta... ekin!	Indar eta Atsegin

3.UD, AUTONOMIA

Bizitzaren esparru guztietan.

Pentsatzeko eta proposatzeko, erabakiak hartzeko, antolatzeke eta egiteko autonomia.

Besteekin. Besteen autonomia errespetatuz, besteen ezaugarriak, egoerak, beharrak eta proposamenak kontuan hartuz.

“NIK BAKARRIK!, NIK AHAL DUT!”.





IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

IRAKASLEAREN GIDA

1. Autonomia pertsonala: nik jarduten dut; zuk, neska, jarduten duzu; zuk, mutil, jarduten duzu... ala ez?
2. Helburua: guk, neskek eta mutilek, jarduten dugu; haiek, neskek eta mutilek, jarduten dute.
3. Unitateko materialak eta ekintzak.
4. “Indar eta Atsegin” ipuina.
5. “Kamara eta... ekin!” mahai jolasa.



1 AUTONOMIA PERTSONALA: NIK JARDUTEN DUT; ZUK, NESKA, JARDUTEN DUZU; ZUK, MUTILA, JARDUTEN DUZU... ALA EZ?

Gure ikasleak bizitzen ari diren hazkundera era berezi batean islatzen da gauzak era autonomoan egiteko grinan, gauza berriak eurek bakarrik egiteko gogoan eta horretarako “handiak” direlaren aldarrikapenean. Lehendabiziko unitate didaktikoaren gidan jaso genituen adin honetako hainbat ezaugarri eta aurkikuntza berri. Beraien artean norbere autonomiarekin zer ikusirik duten hauek aipatu ditzakegu: etxeko girotik ateratzea, gauzak ulertzeko, ikusteko, probatzeko, egiteko, ezagutzeko... jakinmina eta bereziki jolasteko grina. Oso gogoko dituzte galdera erantzun jolasak, antzekotasunak edo ezberdintasunak bilatu, gauzak elkarrekin lotu edo sailkatu, ipuinak eta mahai jolasak, hitz-joko eta ahokorapiloak eta abar.

Gakoa berriz, ikasle neskek eta ikasle mutilek autonomia pertsonala garatzeko aukera eta baldintza berberak dituzten jakitean datza. Hots, nesken “bakarrik egin dezaket” edo “badakit egiten” edo “nik egingo dut” hori mutilen “bakarrik egin dezaket” horren pareko den ala ezberdinak diren eta, horrela balitz, zergatik diren ezberdinak. Hau da, nesken “jarduten dut” horrek mutilenaren eduki eta garapen berberak dituen, esparru beretan ematen den eta gizartearen baimen eta onarpen berberak dituen.



BEHAKETA: AUTONOMIAZ JARDUN



“JARDUTEN DUT”: NESKEK ETA MUTILEK BERDIN?

- Egoera, aukera eta baldintza berdinetan?
- Autonomia maila berbera arlo ezberdinetan?
- Gizartearen onarpen eta balio berberarekin?

GURE GIZARTEAN

- Orokorrean, neskek eta mutilek ez dute egoera berdinetan jarduten eta ezta ere egoera berdinetan berdin jarduten.
 - Orokorrean, gizartean neska eta mutilentzat jardun “normal eta natural” ezberdinak bereizten ditugu.
 - Nesken autonomia ≠ Mutilen autonomia.
-
- Semaforo gorriak (debekuak) identifikatu eta itzali. Semaforo berdeak (baimenak) identifikatu eta guztientzat piztu.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Autonomak
EUSKO JAURLARITZA  Departu Autonomak
GOBIERNO VASCO

MITOA: NESKA LASAIAK ETA MUTIL "HIPERAKTIBOAK"

**"MUTILAK EZ DIRA GELDITZEN"
"NESKAK LASAIGOAK ETA ORDENATUAGOAK DIRA"**

- **NESKEN** jardun autonomo eta arduratsuak gure gizartean:
 - itxura, higienea...
 - jostailuak, arropa, motxila, ikasmahaia...
 - jolasak, ekintzak, ikasketak...
 - ohea, armairua, logela...
 - harremanak, elkarreraginak...
 - taldeko lanak, partekatutako lanak...
 - taldea, lagunak, pertsonak...
- **MUTILEN** jardun autonomo eta arduratsuak gure gizartean:
 - tankera, presentzia...
 - garapen fisikoa, mugikortasuna...
 - ingurune fisikoa, egoera, espazioa...
 - jostailuak, tresnak, makinak...
 - esplorazioa, joan-etorriak...
 - gustuak, nahiak, proiektuak...
 - erronkak, lorpenak, arrakasta...





EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Autonomia Erkidegoa
EUSKO JAURLARITZA
Departamento de Gobierno Vasco
GOBIERNO VASCO


HELBURUA: "MOTXILA ORDENATU ETA MOTXILA ERAMAN"

IKASLE NESKEK ETA IKASLE MUTILEK MODU AUTONOMO ETA ARDURATSUAN JARDUTEA

- Autonomia maila bera.
- Autonomia arlo berberak.
- Autonomia mota bera.



- Autonomiaz jokatzeari zer den jakitea → bizitzaren arlo guztietan.
- Pertsona bakoitzaren ezaugarri eta aukeren arabera eraiki jardun autonomoa → ez neskaren ereduaren arabera eta mutilaren ereduaren arabera.
- Erantzukizuna eta errespetua.



HELBURUA: SEMAFORO BERDEAK GUZTIONTZAT



SEMAFORO GORRIAK AURKITU ETA ITZALI SEMAFORO BERDEAK GUZTIONTZAT

- Neska eta mutilentzat semaforo berde berberak. Ez daude soilik neskek edo soilik mutilik egin ditzaketen jarduera autonomoak.
- Semaforo gorriak identifikatu eta itzali: mutilek autonomiaz "egin ezin dituzten" / "egin ohi ez dituzten" jardunak eta neskek autonomiaz "egin ezin dituzten" / "egin ohi ez dituzten" jarduerak.
- Semaforo berdeak identifikatu eta guztientzat piztu: neskek eta mutilek jardun berberak egin ditzakete modu autonomoan, bizitzaren arlo guztietan.
- Ezberdintasunak norbanakoak dira ez sexuaren araberakoak.
- Berdintasunez jarduten ikasi: neska eta mutil bakoitzaren autonomia baloratu, errespetatu eta onartu sexua kontuan hartu gabe.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Autonomakoa
EUSKO JAURLARITZA Departamentu Autonomakoa
GOBIERNO VASCO

HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA

**Unitate didaktikoaren materiala
hiruhilekoan zehar erabili**

PAUSOAK:

→ **Asteroko saioetan ikasleekin:**

- “Indar eta Atsegin” ipuina landu.
- “Kamara eta... ekin!” jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- Ikasleen koadernoak bete, ipuina eta jolasa barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

→ **Eskolan landu ondoren:**

- Familien koadernoak etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da “etxeko-lana”, ez da eskolan “zuzenduko”. Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.





EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Elkarlanean
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

"BERDINLAND"



BAZEN BEHIN...

- Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik eredu positibo eta anitzak.
- Gure gizartean ohiko egoera eta pertsonai estereotipatuen alternatiba berdinzaleak.
- Ikasleen adineko neska-mutil lagun taldea eta beraien eguneroko bizipenak.
- Ipuin bakoitzean kanta bat eta taldeko neska eta mutil baten protagonismoa eta lidergoa.



"INDAR ETA ATSEGIN" IPUINA




JARDUN OSO EZBERDINAK

- **INDAR**, presentzia fisiko eta jardun aktibo handiko neska → "Zergatik ez? Jadanik handia naiz".
- **ATSEGIN**, komunikatzaile eta argumentatzaile ona → "Konbentzituko ditugu. Denon artean egin dezakegu!".


AUTONOMIA ETA ELKARLANA

- Proiektu propio baten lidergoa partekatzen dute.
- Pertsonaia guztiek nahi duten, dakiten eta ahal dutenaren arabera jarduten dute, modu autonomoan, proiektua aurrera eramateko.



IPUINA LANDU

**Egunerokotasunarekin lotu.
Hausnartu, eztabaidatu.
Ipuina jarraitu, aldatu...**



JARDUERAK

- Ipuina ikusi eta entzun (bideo-ipuina) edota irudiak eta testuak ikusi eta irakurri (pdf artxiboa).
- Zer gustatu, zer ez, zerk harritu...? Zergatik?
- Gure gelan, gure herrian, horrelako neskak daude? Zergatik? Nolakoak dira? Eta mutilak? Zergatik? Nolakoak dira?
- Zergatik jokutzen du horrela pertsonaiak? Neska delako? Mutila delako? Bere ogibidearengatik? Bere nortasunarengatik?
- Zer nahiko genuke ikasi, entrenatu, trebatu? Zergatik? Ahal dugu egin? Zergatik?



ONLINE JOLASAK

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Autonomia Erkidegoa
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU

- Lan-talderako materialak.
- Egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...



JOLAS BAKOITZAK HIRU ATAL


- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)

HASIERAKO TUTORIALA

ERABILERA

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
 - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
 - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta, gero, taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanaz. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.





BUKAERAKO LABURPENA

ERABILERA

- Partidaren emaitzak aztertzeke eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
- Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta, gero, taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren arabera dira.



ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK



1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu...
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu...
- Karta edota fitxa berriak sortu.

2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu...
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

“KAMARA ETA... EGIN!” JOLASA

6 KARTA-SORTA EZBERDIN: Karta-sorta bakoitzak 16 karta, 4 kartako 4 puzzle osatzeko

- **PERTSONAIAK:** karta multzo bakoitzean 1, 2 eta 3. unitate didaktikoen ipuinen protagonista bat: Luze, Txiki, Bero, Hotz, Indar eta Atsegin.
- **4 PUZZLE (eszena) = sekuentzia bat:** karta multzo bakoitzeko 16 kartak lau puzzle osatzen dute (lau eszena) eta hauek, ordenaturik, sekuentzia bat (istorio bat).
- **6 SEKUENTZIA = 6 jardun autonomo:** mahaia atondu, jantzi-erantzi eta igeri egiten ikasi, bakarrik lokartu, bizikletan laguntzarik gabe ibili, kalea zeharkatu eta ogia erosi, hondartzan galdu ondoren laguntza eskatu.





EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Autonomiaren
EUSKO JAURLARITZA
Gobierno Vasco

"KAMARA ETA... EGIN!" JOLASA

1.- KARTA- SORTA ARROSA



2.- KARTA- SORTA HORIA



3.- KARTA- SORTA BERDEA



1. KARTA-SORTA ARROSA

Familia bizitzaren eta zaintzaren inguruko ardura eta lanetarako autonomia irudikatzen du. Mahaia jarri eta zerbitzatu. Familiaren bizitzan erantzunkideak izaten ikasi.

2. KARTA-SORTA HORIA

Funtzio eta garapen pertsonalerako autonomia irudikatzen du. Bakarrik lo egin. Deskantsatzen ikasi, nor bere atsedenerako denbora hartzen ikasi eta besteena errespetatzen ikasi.

3. KARTA-SORTA BERDEA

Gune kolektibo partekatuetan ematen den ikasketetarako autonomia irudikatzen du. Igeri egiten, janzten eta erantzten, eta ondo pasatzen ikasi. Beren gauza eta jardunarekiko ardura hartzen ikasi.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Elkarlanean
EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

"KAMARA ETA... EGIN!" JOLASA

4.- KARTA- SORTA GORRIA



5.- KARTA- SORTA URDINA



6.- KARTA- SORTA MOREA



4. KARTA-SORTA GORRIA

Aisialdirako eta ustekabeko eta aurreikusi gabeko egoeretarako autonomia irudikatzen du. Laguntza eskatu hondartzan galduz gero. Laguntza noiz behar den eta nori eskatu ahal zaion identifikatzen ikasi.

5. KARTA-SORTA URDINA

Hurbileko inguru sozialerako eta erantzunkidetasunerako autonomia irudikatzen du. Etxetik irten eta ogia erostera bakarrik joan. Beren inguruan konfiantzaz, arretaz eta ziurtasunez mugitzen ikasi.

6. KARTA-SORTA MOREA

Proiektu, esfortzu eta hobetze pertsonalerako autonomia irudikatzen du. Bizikletan ibiltzen ikasi. Gauza berriak egiten ikasi, zailtasunak eta hasierako porrotak gainditzeko ikasi.



JOLAS ARAUAK 1

LAU PUZZLE OSATU

Behean dagoen gezi berdean klikatu dauden fitxak ikusteko. Bat aukeratu (klikatu) eta puzzlean itsatsi (klikatu).

Ez badaude fitxak jartzeko, gezi gorrian sakatu paso egiteko.

Lehenengo puzzlea osatzean, bigarren puzzlea azalduko da betetzeko. Horrela, banaka azalduko dira lau puzzleak osatu arte.



* Online jolasaren hasierako tutoriallean zehatz-mehatz azalduta



JOLAS ARAUAK 2


**LAU
ESZENAK
ORDENATU,
SEKUENTZIA
OSATU**

Ondoren,

? BALIOZTATU

sakatu.

**Erratu bada,
lau puzzleak
berriro
ordenatu.**



* Online jolasaren hasierako tutoriallean zehatz-mehatz azalduta



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Autonomia Erkidegoa
EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**


IKASLEEN KOADERNOA

Landutako ipuin eta jolasei buruzko ariketak



1 NESKAK ETA MUTILA, BERDINAK?

1 Begiratu laukietako ekintzak. Gure gizartearen, orokorrean, batzuk gehien bat neskek egiten dituzte eta beste batzuk mutiek. Indarren zenbakiak inguratu lehengo kasuan eta Atseginen zenbakiak bigarenean. Zergatik gertatzen da hau? Beste era batera izan daiteke?



► Berdinlanean ere horrela da? Edo jardun guztiak neskek eta mutiek egiten dituzte euren sexuari erreparatu gabe?

AUTONOMIA - JARDUN 3. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

2 Ikus dezakezue, marrazki pare bakoitzak sekuentzia bera jasotzen du, baina egoera desberdinekin. Pertsonak ez dufle modu berdinean jokatu berdintasunaren eta autonomiaren ikuspuntutik. Ono begiratu. Zeintzuk dira desberdintasunak?

► Margatu ezazu marrazkien markoa berdez pertsonen portaera berdintasunarako eta autonomiarako egokia denean.
► Margatu ezazu markoa goriz berdintasunaren eta autonomiaren aldetik pertsonak jokabide desegokia dutenean.



AUTONOMIA - JARDUN 3. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

3 Inguratu biribil berde batez sekuentzia hauetan autonomia azaltzen duten pertsonak. Zeintzuk dira? Zer egiten dute? Egin dezakezu zuk gauza bera? Zergatik?

► Inguratu biribil gorri batez sekuentzia hauetan autonomia azaltzen ez duten pertsonak. Zeintzuk dira? Zergatik ez dira autonomoak? Izan daitezke? Zer egin beharko lukete horretarako? Zer aditu beharko lukete?



AUTONOMIA - JARDUN 3. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

2 NIK AHAL DUT, NIK EGIN DEZAKET

4 Inguratu jadanik zuk zeuk bakarrik egiten dakizkizun jardunak. Nola ikasi duzu egiten? Zergatik ikasi duzu?



► Marraztu itzazu laukietan autonomia izateko ikasi nahi dituzun bi jardun, bat orain ikasi nahi duzuna eta bestea handia zarenean.

ORAIN	HANDIA NAIZENEAN

HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu (zenbaki bera idatzi).
- Kantaren esaldien hutsuneetan hitzak idatzi.

PDF
betegarriak



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakutsi Autonomiaren Ogaritza Autonomikoa
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

FAMILIEN KOADERNOA

Landutako ipuin eta jolasei buruzko ariketak



1 Bete hutsuneak hitz hauek erabiliz.

lanetan benetan hitzetan proiektuan



Indartsu ta kementsu da neska
trebea eta abila multia
taldea osatzen dute biak
adore ta ideiak uztaizten



2 Erakutsi etxekoel Indar eta Atseginen kanta.

AUTONOMIA - JARDUN 3. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

3 Zenbakitu marrazkiak Indar eta Atseginen ipuinaren ordenaren arabera.



4 Irudiak jarraituz, kontatu etxekoel Indar eta Atseginen ipuina.

AUTONOMIA - JARDUN 3. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

5 Azaldu egiazte zuen seme edo alabari autonomiarako bidean nola eta nola lortu zituen jardun autonomo hauek berdea.



- Gau osoan lo egitea.
- Oinez hastea.
- Bakarrik jatea.
- Hitz egiten hastea.
- Bakarrik lo egitea.
- Txupelea uztea.
- Flixhala kentzea.
- Jantzi eta erantztea.
- Irakutzen hastea.

6 Azaldu egiazte zuen seme edo alabari autonomiarako bidean zein beste jardunak ikasiko dituen hemendik aurrera eta nola ikasiko dituen.



Idatzi edo marraztu hemen.



AUTONOMIA - JARDUN 3. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

7 Asmatu eta kontatu elkari sekuentzia bakoitzaren ipuina, aurretik eta atzetik gertatutakoa jasoz. Guztietan, protagonisak beste batzuekin jarduten dira. Zer abantailak ditu horrek norberaren autonomiarako?



Gogoratu


- Neskek zein mutilak autonomiak izaten berdin-berdin ikasi ahal eta behar dute.
- Autonomia eta erantzukizuna garatu behar dute euren bizitzan aro guztietan: familia, eskola, jolasa, lagunak...
- Jardun autonomoa soilik jardunez ikas daiteke.
- Berdintasunez jardutea neska eta mutil bakoitzaren jarduna itxileta, bultzatzea, exijitza eta baloratzea da, sexuaren arabera bera gabe.



PDF
betegarriak

HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Testuaren esaldien hutsuneetan hitzak idatzi.
- Ipuinaren marrazkiak zenbakitu. Ipuina kontatu. Kanta erakutsi.
- Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi, zenbaki bera jarri...).



FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA



PAUSOAK:

1. Familiei Nahiko! aurkezteko bileran koadernoak eta beren erabilera azaldu.
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu...
3. Koadernoak erabili etxean elkarrekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko.


GARRANTZITSUA: TOPAGUNEA DA ETA EZ "EGINBEHARRA"

- Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
- Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
- Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak... BIZITZA partekatzeko aukera.

- Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
- Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
- Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.



- Nabigatzailean leiho independentienteak nola sortu.



EMAKUNDE
ERAKUNTZA
KOMUNITARIOA

**NAHIKÖ PROGRAMA
JARRAIBIDEAK**

NAHIKÖ berritu berriro, Erreparatu eta Berritu proiektuaren bidez. Programa Erakundearen NAHIKÖ erakundearen bidez. Erakundearen bidez.

E. ERANSKINA: INTERNETEN BIDEZ ONLINE JOLASTEKO JOLASAK

E2. IRAKASLEA ETIA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSUAK

16. JOLASTEKO ERA AUKERATU


Ikaslearen adina eta kopurua, ordenagailuaren kopurua eta jolasarekin aritzen diren zenbait gaitarri aldia den kontuan harturik; **jolasteko era moldatu daiteke** (ikus 6. atala, 5. orrialdean):

- Arbela digitala eta proiektorearekin.** Ahal bada, 2 ordenagailurekin. Bakarria badago, **garrantzitsua: leihor independentek zabaldu behar dira (ikus E3 eranskina).**
- Taldeak ordenagailu bakoitzean.** Binaka, adibidez.
- Banaka ordenagailu bakoitzean.**
- Jolas talde eta taldea ugari.** Halakoetan, lehenengo talde bat osatu eta jolasten hasi. Ondoren, 2. taldea sortu eta jolasten hasi. Segi horrela, behar adina talde sortuz.

OHARRA: Jolasak, **gehienez 12/14 jokalaririk** jolasteko prestatuta daude. Hau da, pantailan aurpegitxo baten bidez 12/14 jokalaririk jaso eta bere txanda moiz den adierazteko.

17. IRAKASLEA ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSOAK

- Hizkuntza jokalaririk bakoitzak aukera dezake, eta jokaldi berean batzuek hizkuntza batean eta besteak beste batean aritzeko aukera ematen du.**



IKASLEA

JOKALARI

- Jolas bakoitzean **orden honetan** eman behar dira altan irakaslea eta ikasleak. **Kontuan izan ezin direla espazioak erabili, soilik hizkiak eta zenbakiak onartzen ditu.**
- Irakaslearen alda** txutau hauek beteze egiten da:

Sar ezazu zure izena eta ezizena eta sakatu "Sartu" jokoan sartzeko

IRAKASLEA


(Sartu irakasteararen izena)

1 _____ Joko-taldea

Irakasteararen izena eta jokaltasun sartu (zure jokaltasunaren izena) duen irakasteko talde baten talde baten bidez 1 zenbakia utzi dezakezu.

GARRANTZITSUA: Irakasteararen izena eta jokaltasun jokalaririk guztien eman behar da irakasteararen baten jokatu dezaren.

Kontuan izan guztiak berdin-berdin idatzi beharko duzuela irakasteararen izena.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO